



ORDIZIA ETA ATAUN HERRIETARA BIZIKLETAZ

Aste honetan Goierria joango gara berriro; 61 kilometro dituen ibilbidea proposatzen dizuegu »6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2010-07-10**

VIII. URTEA 2.048. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Sacem inguruaren gaineko proiektuak bildu dituzte uhaskan

VILLABONA Inauguratu berri duten eremuan 'Villabona irudikatzen' erakusketa ikusi daiteke hilak 21 arte

IKASLEAK EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoko ikasleek landutako lanak dira bertan ikusi daitezkeenak s



EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoko irakasleak ere izan dira uhaskako erakusketa ikusten. E. MAIZ



M. ARTOLA

Udalak «San Bartolome jaien inguruan esaten ari diren gezur eta manipulazioak» salatu ditu

IBARRA Udalbatzak jaiak antolatzeko ardura hartu duela dio, «eta ez enpresa bat, interesdun pertsona talde batek esan duen bezala» 4

LANDER LASA SASKIBALOIKO JOKALARIA

«Jokatu nahi badut gogotik egin beharko dut lan»

TOLOSA Datorren denboraldian Lagun Arorekin jokatzeko gonbita jaso du kirolari gazteak 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidaliz izen-emata orria:
Araba etorbidea 51 behean • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31980 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	• N A:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

INFO
943 654 501
www.tolosaldeagaratzen.net
San Esteban 20
20400 TOLOSA

EHITZANEA ZARA? ERAKIS EZAZU
TOLOSALDEAN NEGOZIO IDEIA BERRIAK SORTZEN LAGUNTZEKO SUSTAPEN KANPAINA

AURKEZPEN EPEA:
-Ekainaren 1etik Irailaren 30era edota aurrekontua agortu arte
-Enpresa martxan jartzeko epea 2010eko Abenduaren 31an amaitzen da

100€ NEGOZIO IDEIAREN BIDERAGARRITASUNA DEFENDITZEAGATIK

TOLOSALDEAN ENPRESA EKIMENA MARTXAN JARTZEKO 500€



Aranalderi babesa adierazi diote

IBARRA ■ Maite Aranalde euskal presoak gose greban dago uztailearen 1etik, espetxean bakarrik dagoela eta protesta egiteko. Hala, Amnistiaren Aldeko Mugimendua deituta, giza-katea egin zuten herenegun herritarrari elkartzasuna adierazteko, eta mobilizazioak osategunero egingo dituztela iragarri dute. Halaber, hilaren 17an, egorak berdin jarraituko balu, preso dagoen Potiers-Vivonneko espetxera martxa burutuko dute. Bertara joateko autobuserako ohiko lekuetan eman behar da izena. A. I.

Antzinako musika Soledad Cardoso eta Jose Miguel Morenoren eskutik, gaur

Musika » 20:30ean hasiko da sopranoaren eta gitarraren jotzailearen emanaldia; Gau Giro ekimenaren baitako kontzertua da.

ERREDAKZIOA

Gau Giro ekimeneko lehen kontzertua izan zen atzo Hogeihatzen eskutik, eta gaur izango du jarraipena eskaintza berezi batekin. Hain zuzen ere, *Los muchos caminos a Santiago* izenburupean, antzinako musikaz gozatzeko aukera izango da Santa Klara komentuan, 20:30etik aurrera. Emanaldi honetan Soledad Cardoso sopranoak eta Jose Miguel Morenokitarrak jotzaileak hartuko dute parte.

Soledad Cardoso Argentinan jaioa da. Bertako eta nazioarteko hainbat lehiaketetan sariak irabazi ondoren Espainia aldera jo zuen eta han Alfredo Kraus eta Teresa Berganzaren ikasle bihurtu zen Reina Sofia Musika Eskola Nagusian. Espainiako erreginarenean eskutik ikaslerik bikainenaren aipamena jaso zuen.



Soledad Cardoso eta Jose Miguel Moreno gaur ariko dira Santa Klaran. HITZA

Madrilgo Erret Teatroan honoko operak egin ditu: *Celos aun del Aire Matan*, *Pizzi* eta *Malgoire* rekin batera, *Manon*, *Don Carlo*, *El Pequeño Deshollinador*, *Musorgskyren El Casamiento*, *L'enfant et les Sortilèges* eta *Las Bodas de Figaro*. Coruñaiko Mozart jaialdian, berri, *Las Bodas de Figaro*, *Exultate*, *Requiem-a*, *Haydnen Orfeo et Euridice*, *Cavalliren Gli*

Ammore d'Apollò e di Dafne, Sartorioren *Orfeo* eta Haendelen *La Resurrezione*.

Jose Miguel Morenok, bestalde, *Vihuela*, gitarra errenazentista, gitarra barrokoa, angelikoa, tiorba, laud errenazentista, laud barrokoa eta gitarra klasiko-erromantikoa jotzen ditu. Madriden jaio zen, eta bere aitarekin hasi zen formatzen. Sari entzutetsuak irabazi ditu.

Esklerosi anizkoitzaren alde egingo dute gaur

ERREDAKZIOA

Esklerosi Anizkoitzagatik *Busti Zaitz* kanpaina egingo dute gaur goizean Tolosan, San Frantzisko pasealekuan, Artxiobaren ondoan jarriko duten mahaian. Laugarren urtez egingo dute kanpaina, «herritarrek sentsibilizatzeko eta dirua lortzeko helburuarekin».

Esklerosi Anizkoitza Fundazioak, Ademgiren laguntzarekin, antolatutako jardunaldi solidario honenkin gaixotasun neurologiko honen sortarazten dituen arazoez informatu nahi dute, horretarako informazioa banatuaz. Halaber,

Ademgik 2007ko maiatzean ireki zuen Esklerosi Anizkoitza eta beste gaixotasun neurologikoen zentroan gaixoei eskaintzen dien birgaitze zerbitzua finantzatzeko dirua ere lortu nahi dute. Tolosan bezala, Gipuzkoako beste 13 puntutan ere burutuko dute ekimena.

Esklerosi Anizkoitzaren alde lagunduko edo kanpainan parte hartu nahi dutenek mahaira hurbildu eta informazioa jasotzeaz gain, salmentan dauden Kukuxumuxu produktuek eros ditzakete. Gainera, Usabal igerilekuan ere egongo dira materiala saltzen.

Laburrak

2011ko egutegirako argazki lehiaketa martxan

TOLOSA ■ Tolosagasa eta Tolargik antolatutako, ohi bezala, martxan da 2011ko Tolosa Egutegirako argazki lehiaketa. Aurtengoa erretratuei buruzkoa izango da. Oinarriak <http://tolosagasa.blogspot.com>-en ikus daitezke. Jasotzen dituzten 40 argazkirik onenak bilduko dituzte eta ondoren, bisitariek onena bozkatu ahaliko dute.

Erabilera anitzeko gunea jaietan inauguratuko dute

ALDABA ■ Erabilera anitzeko gunea izango dute laster prest Aldaba auzoan. Hasiera batean biharko zuten inaugurazio ekitaldia aurreikusia, baina azkenean guztia prest ez dela eta, atzeratu egin beharra izan dute. Bertatik azaldu dutenez, auzoko jaien baitan, irailean, izango da ziurrenik gune berriaren inaugurazioa.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 90491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

400 AUKERA HANDIA ETA GIZTIA
Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGAIAK, JANTZIAK, ESKULANGINTZA,
DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...

SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherriko Plaza.com

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

LANDER LASA Saskibaloiko jokalaria

Kirola » Lagun Aro taldearekin jokatuko du datorren denboraldian eta bertako jokalarien pare jartzeko «lan handia» egin beharko duela dio saskibaloiko jokalaria gazteak.

MIKEL ARTOLA

Urtarrilean Lagun Aroarekin entrenatzen hasi zen Lander Lasa (Tolosa, 1988) saskibaloiko jokalaria gaztea. Orain beraiekin jokatzeak aukera eskaini diote. Ustekabean baina ilusio handiz jaso du berria, eta denboraldia hasteko irrikaz dago.

Zorionak emateko dei asko jasoko zenituen.

Bai. Batek baino gehiagok deitu dit. Batez ere mezuak izan dira jaso ditudanak. Hainbeste pertsona nigan interesatuta egotea pozgarria dela iruditzen zait. Gainera, interesgarria da jendeak saskibaloiko kontuen berri izatea.

Azkena egindako elkarrizketan ACB mailan jokatzea oso urrun zegoela zenion.

Bai, halaxe uste nuen orain arte. Nik sorpresaz hartu dut guztia. Orain dela gutxi arte ez nuen uste inoiz ACB ligako jokalaria izango nintzenik, Lagun Aroarekin entrenatzeko aukera sari bat bezala hartu nuen, eta orain, merezita edo merezi gabe, hala izatera iritsi naiz. Ilusio handiarekin jaso dut berria.

Entrenatzaileak oso ondo hitz egin du zure entrenamenduari buruz. Zer moduz sentitu zara?

Hasieran asko kostatu zitzaidan. Maila handiko jokalaria izan guztiak, abiadura ikaragarrian jokatzen dute. Nik ordurarte probatutakoa eta entrenamenduetan ikusten nuena bi mundu desberdin ziren, saskibaloian jokatzeak beste modu bat zutela ikusi nuen. Hala ere, maila horretara moldatzen asmatu dudala uste dut, eta entrenatzaileak dioen bezala hor egotea merezi badut, ondo etorria izango da aukera.

Aldaketa handia sumatu al duzu Lagun Aroarekin hasi zinetetik?

Bai, handia. Denean hobetu dudalauste dut, bai fisikoki eta baita teknikoki ere. Lehengo taldearekin ere maila politean aritu nintzen, baina urtarriletik aurrera beste maila bateko entrenamenduak egiteak asko lagundu dit, beste motibazio batekin aritu naiz lanean, eta horrek eraman nau orain naizen jokalaria izatera.

Gogorra izan al da orain arteko bidea?

Denetik probatu dut, momentu onak eta txarrak. Agian zailena kanpora joan nintzenekoa izango zen. Hogei urterekin Burgosera joan nintzen, eta urtebete pasa nuen bertan; oso gogorra egin zitzaidan, ez nintzen batere gustura



M. ARTOLA

«Nire helburua ahalik eta minutu gehien jokatzea da»

aritu. Baina hura aparte utziz gero, uste dut beti izan dudala zorte pixka bat momentu eta toki egokian egoteko. Norbere ahaleginaz gain zorte puntu hori ere beharrezkoa izaten da, eta nik izan dudala uste dut.

Ingurukoen laguntza ere premiazkoa izango da, ezta?

Bai, jakina. Askok lagundu didate orain arte egin dudana bidean. Hemendik aurrerakoa ere gogorra izango da, agian ez dut asko jokatzeak aukerarik izango eta psikologikoki prestatuta egon behar dut. Nire neskalagunak, familiak eta gainerako lagunak lanean jarraitzeak indarra ematen didate. Gauzak zailtzen direnean asko esker-tzen da ingurukoen laguntza.

Azpeitiako taldearekin mailaz jokatzea lortu duzue aurten.

Lehengo urtean oso gaizki aritu ginen, baina aurten, talde kaskarragoa edukiatatik, oso gustura eta gogotsu ibili gara. Gainera, kanpion talde on baten aurka lortu genuen igotzeko txartela, eta hori esperientzia izugarria izan zen. Eskerrak ematen dizkiet taldekideei egindako lanagatik, ez dut inoiz ahaztuko haiekin bizitakoa.

Pena ematen al dizu taldea uzteak?

Jakina. Mailaz igo eta haiekin jarraitzeak ilusio handia egiten zidan, urte polita izango zen hurrengo. Taldekideak ez dira taldekide hutsak, lagunak ere badira, batzuk aspalditik ezagutzen ditut, umeta-

tik. Baina trena behin pasatzen da, eta ezin dut aukera hau alferriki galdu.

Orain taldeko gipuzkoar bakarra izango zara.

Bai, aldaketa handia izango da. Azpeitian taldea bertako jokalariekin osatzen saiatzen ginen, bakarrik zen kanpotarra. Orain ordea, ia alderantziz da. Askok amerikarrak dira eta elkar ulertzeko ere arazoak izaten ditugu. Hala ere, saskibaloiko jokalaria izateaz gain, gu bezalako pertsonak dira guztiak, eta laguntzeko prest izan ditut hasierahasieratik. Batez ere taldera sartu nintzenean asko lagundu zitadan, burua bere tokian mantentzeko aholkuak eman dizkirate, esperientzia handiko jendea da.

Zenbaterainoko alde espero duzu EBA mailatik ACB-ra?

Aldea handia izango dela uste dut. Nahiz eta orain arte entrenatzen eta beraiekin aritu naizen, orain taldearen barruan nago, eta jokatuko nahi badut gogotik egin beharko dut lan. Minutu batzuk jokatzeak ere daukadan guztia eman beharko dut entrenamenduetan, aukian eserita egotea ez zaio inori gustatzen. EBA ligan ere badira maila handiko taldeak, baina hau desberdina da. Jokalaria ere handiak eta indartsuak dira, denean antzematen da alde. Lan handia egin beharko dut fisikoki haien pare jartzeko.

«Ingurukoen laguntza oso premiazkoa da, batez ere gauzak okertzen direnean»

«Datorren denboraldiko helburua ez jaitea izango da, eta hortik aurrera ahal den guztia»

Zein da Lagun Aro taldearen helburua datorren denboraldiari begira?

Gure helburua ez jaitea izango da, eta hortik aurrera ahal den guztia. **Eta zure helburua?**

Nire helburua aulkian ahalik eta gutxien egotea da, minutu batzuk jokatzeak aukera izatea, eta batez ere disfrutatzea. Urtebeteko kontratua daukat, eta bertan denbora gehiagoz geratzeko egingo dut lan. **Tolosarra izanda, zer moduz ikusten duzu saskibaloia hemen?**

Ni hasi nintzen garaian bi talde zeuden, umeena eta helduena. Orain eurastrutura handiagotu egin da egindako lanaren ondorioz. Nire ustez lan ikaragarria egin dute hemen ingurukoek, eta emaitzak agerian daude. Oso umetatik saskibaloian jokatzeak aukera dago, eta entrenatzaileak ere tituluak dira asko. Azpeitia eta Tolosa Gipuzkoako herri garrantzitsuenak dira saskibaloian munduan, gauzak asko hobetu dira ni hasi nintzen garaitik hona.

Zein aholku emango zenieke jokalariei?

Nire ustez garrantzitsuenak pixkanaka ikasten joatea da. Norbere buaruari helburuak jartzea oso ondo etortzen da, zer lortu nahi den jakiteak asko laguntzen du. Norbera noraino iritsi daitekeen ikusi behar da.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Arropa.** Bizikletan ibiltzeko arropak salgai (kamisetak, kuloteak, txaketak...). Euskaltel markakoak. Oso berriak. XXL neurrikoak. 637-94 80 12.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.	Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuko langileak behar dira. Lanpostu finkoak.	Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.
610-71 97 82	600-97 74 95	607 -25 42 40

Leitza » Plazaolako Partzuergo Turistikoak txango eta iteera ezberdinak proposatzen ditu inguruak ezagutzeko.

ERREDAKZIOA

Plazaolako partzuergoak udako oporrei begira Leitzaranez eta bere inguruez gozatzeko bisita gidatuak antolatuta ditu. Horien artean aukera ugari egongo da.

Aurreko urtean egin bezala, 2010eko uda honetarako 2010eko Uda oihanaren bihotzean izena duen programa prestatu dute, ingurutik antolatuta eta aukeraturako bisita gidatu desberdinekin. Horien artean, mota guztietakoak eta gustu guztietarako aurkituko dituzte bisitariak, izan ere, aurtengo eskaintza ia zuzena baino zabalagoa da. Programan sartu berri duten Etxeberriko Lacturale - Esnearen Interpretazio Zentroko bisita da horren adibide.

Leitzaran inguratzen duten herrietan banatuta daude bisitak. Baina Leitzari dagokionez ondorengo lekuak gomendatzen dituzte. Hasteko, Leitzako Alde Zaharra eta Leitzalarreako izei zuriak;

Leitzarango inguruetatik bisitak



Perurenatarren Peru Harri museoaz egazutzeko aukera eskaintzen dute. A.I.

baita, Peru Harri harriaren parkea ere; eta azkenik, Saralegiren Arro baserria

Bisitaldi guztiak aurretiko hitzorduaren bitartez egingo dituzte. Horretarako, interesatuek telefonoz deitu behar dute Plazaolako

partzuergora (948 50 72 04). Jarraian, partzuergoaren egunerako kontratatutako erantzukizun zibeleko aseguruia dute. Bestalde, ibilaldia egiteko, gutxienezko taldearen kopurua galdetu behar dela ohartarazten dute.

» INTERESGUNEAK

■ **Basaburuko ehun urtetik gorako haritzak.** Jauntsaratsen dauden ehun urtetik gorako haritzak, Natur monumentuak izendatu dituztenak, ikusteko aukera.

■ **Leitzako Alde Zaharra eta Leitzalarreako izei zuriak.** Alde Zaharrean barrena, tradizioko etxeak, labaderoa, eta eliza ikusi daitezke. Herrigunetik zazpi kilometrotara daude izei zuriak.

■ **Lekunberriko Alde Zaharra.** Plazaolako geltokitik irtenda, Natur Bidean zehar paseotxo bat eman daiteke, eta Lekunberriko Alde Zaharra bisitatu.

■ **Irabasko iturburu eta etxe tipikoa.** Iribasko iturburuak kokatzen diren gunean, iturbegiak, leizeak, hustuhideak, dolinak eta ubide zaharra dira ikusgai. Bestalde, Iribasko etxe tipikoa, Larraun bailarako etxe tradizionala da.

■ **Ezkurdi etziak eta erlezaintza museo.** Ultzamako Eltso herrian dago erlezaintzan aritzen den Ezkurdi museo-etxea.

■ **Orgiko haritzia.** Orgi ohian za-

har bat da, antzinako lokatzadun hariztiak osatzen zuten lurraldearen lekukoa.

■ **Espeleobentura Mendukilon.** Mendukiloko kobazuloan, inoiz eguzki izpiak iritsi ez diren lekuak, lamien putzuak, estalaktikak... aurkitu daitezke.

■ **Bikain gaztandegia.** Ardi latharen artalde bat da, Nekazari Transformazio Elkarte bezala osaturik, etxekoan artean sortutako enpresa txiki honen abiapuntua eta izateko oinarria.

■ **Peru Harriaren parkea.** Perurena harri jasotzaileen familiaren harriaren parkea da hau.

■ **Saralegi Arro baserria.** Leitzako Kristina Saralegiren baserrian hazten diren abereak ikusteko aukera.

■ **Beigorriko abentura parkea.** Aritzaldeko hariztian kokatuta, zuhaitzen adarretatik ibiltzeko aukera abenturazalea da.

■ **Mirua natura jarduerak.** Miruak ibilbide anitz eskaintzen ditu, erritmo mantsoan eta gelduene tematikoei nahi natura behatzeko.

Udalak esandako «gezurrekin eta manipulazioekin» amaitu nahi du

Ibarra » San Bartolome jaien eta ordenantza berrien inguruan sortu diren zurrumurruak isildu nahi izan dituzte.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak azken egunotan San Bartolomeko jai nagusien inguruan «esaten ari diren gezur eta manipulazio guztiak» argitu nahi izan ditu.

Beraien hitzetan, «aurreko urteetan bezala, Jai Batzordea deitu zen 2010eko San Bartolome jaiak antolatzeko. Batzordeak berak talde ezberdinekin hitz egin ondoren adierazi zuenaren arabera, hauek ez parte hartzea erabaki zuten Udalaren jarrera egotziz». Hori

dela eta, egoera honen aurrean, Udaltzako bere gain hartu zuen egiteko hori, eta Udaltzako bera da jaiak antolatzeko ari dena, «eta ez enpresa bat, interesdun pertsona talde batek dioen bezala. Horren alferrak garelako pentsatzen al dute?». «Nahikoa da, herrian zer gertatzen den ez dakigula errepikatzen digute, baina agian, beraiek dira burbuila batean bizi direnak eta euren ingurutik areago begiratzeko ez dakitenak, izan ere, Ibarra auzo eta zonalde ezberdinak ditu eta jende ezberdina bizi da bertan», gaineratu dute.

Eraberean, Udalekoen hitzetan, «jakin nahi dute, Jai Batzordea osatzen duten taldeei noiz esan diegun guk oztopo egiten dugutela eta gogaikarriak direla, eta ea noiz inposatu ditugun gure erabakiak».

Azaldutakoaren arabera, jaietako programaren prestaketan zehar, Udaltzako kideak edukia ikusten duten azkenak izaten dira. Batzordekoek, behin programa ikusita, euren onespina ematen diete lehenik eta behin, eta gero, bertan aurkitzen diren Udaltzako kideei erakusten diete.

«Euren buruari herria deitzen dieten horiek» San Bartolome jai nagusietan ez parte hartzeko gonbitea egin omen die ibarrei eta horren aurrean hauxe dio Udaltzako: «leku guztietan daudela politika eta festa nahastea gustatzen ez zaien profesionalak. Hala, oso gauza tristea da herri bertako jendeak parte hartu nahi ez izatea zer esan-gogoren beldur, parte hartzen ikusten banauten, gero... txupinazoa botatzea tokatzen zaigu baina ez dugu botako, bestela...». Era berean, Udalekoen esanetan, «hau guztiak batzuen arabera Ibarrean zer gertatzen den ez dakitenek bizi dute. Baina tamalez, hau da errealitatea eta orain arte isildu egin badira ere, herriak ere gertatzen ari dena jakiteko ordua dela uste dute. Izan ere, jaiak boikoteatu nahi dituztenak Udaltzako honen dirua jasotzen ari dira».

Udalak onartutako azken ordenantzak hizketagai

Bestalde, diru-laguntzen gaiak ere badute zer esanik Udaltzako kideek. «Badirudi ez dela batere gus-tatu laguntza hauek eta txosnak arautzeko ordenantza onartu izana. Diru-laguntzen dirua non dagoen galdetzen dute. Guk ordea galdera hori euren jarduerak aurrera eramateagatik dirua jaso du-

tenei egin diezaieten gonbidatu nahi ditugu, adibidez, Alurr taldeari». Bide batez, aipatzen dute, diru-laguntza jasotzeaz gain, Udaltzako bere jabetzako lokalak uzten dizkiola talde honi bere jarduerak burutu ditzan eta mantentzea ordaintzen diela.

Txosnen inguruko ordenantza berria ere hizketagai izan dute eta horren arabera, «San Bartolome plazako neurriak kontutan hartuz, bost jarri behar dira ilaran». Neurriei dagokionez, ezin dituzte 32 metro karratuak gainditu. Hala, honen inguruan galdera hau luzatzen dute: «Zer egin behar da finkatutakoak betetzen ez bada?», bere horretan utzi? »

Gazte Festak ere aipatu dituzte. Urtero bezala ospatu da festa eta antolatzaileei ez diete kobratu ez eremu publikoaren alokairua ezta buletina ere. Ez beraiei ezta ere plazan ipini zirenen gainerako txosnei. Moto Festari ere urtero bezala lagundu omen diete.

Udalak dio ez daudela hemen dirua poltsikoan sartzeko, baizik eta «guztiona den diru hori ongi inbertitu eta herrian garatzen diren jarduerak Ibarrean bizi diren pertsona guztiak zuzenduta egon daitezkeen lortzen saiatzeko, ez soilik sektore bati zuzenduta». Argi dute, ez diotela inori ezer kendu, eta kontrakoa dioenak, frogatu egin beharko duela diote.

«Gezur eta manipulazioekin deskalifikazio pertsonalak» egiteaz nahikoa dela deritzote, eta esan, «Ibarrarekin akabatu nahi badugu eta lotarako herri batera bihurtu dadin nahi badugu, jarraitzeko horrela».

Lagundu Udaltzaren kontrako epaiketaren gastuei aurre egiten

DENON ARTEAN ASKE!

EUSKAL HEKRIA


Bai

3035 0071 63 0711 24600

Villabona optika

Aurtengo udan 4x3 eguneko lentiletan

Berria 23 - Villabona
Tel.: 943 111 840



Uhaska guztia proiektu ezberdinez betea dago. Estilo eta mota ezberdinetako eraikuntzak ikus dituzte. E. MAIZ

'Villabona irudikatzen' proiektuak

Villabona » Ireki berri duten uhaskan jarri dute erakusketa hilaren 21a bitarte. Arkitektura eskolako ikasleek egindako proiektuak dira.

ERREDAKZIOA

Hilaren lehenengo egunean zabaldu zituen atak Villabonako uhaskak. Maiatzaren Lehena plazan aurkitzen da, Oria ibaiaren ertzean eta bertan EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoko ikasleek, ikasturtean zehar Villabonako Sacem ingurua garatzeko egindako proiektuak bildu dituzte. Erakusketari, *Villabona irudikatzen* izena jarri diote.

Uhaska beraren inaugurazio ekitaldia orain egun gutxi egin zuten eta bertan izan ziren EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoko irakasleak: Ramon Barrera, Manuel Iñiguez, Ander Caballero, Amaia Casado, Jon Muniategi handikoetxea eta Eugenio Urdanbide.

Ikasleen lanekin prestatu duten erakusketak atak zabalik izango ditu hilaren 21a bitarte. Goizez, 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara.

Aipatu moduan, ikasleek pasa berri den ikasturteko proiektu arako Sacem ingurua aukeratu dute

eta Oria ibaia, mendia eta industria jaso dituzte, proiektu guztiak ezberdinak direlarik.

Proposamen guztiak, hirigintza ordenazio bat eta eraikin desberdinak aurreikusten dituzte; horien artean daude, erabilera publikoko eraikinak eta baita etxebizitzak edota parkeak ere. Proposamen desberdin hauek, Villabonako Udalak eta EHUko ikasleek, lankidetzan aurkeztzen dituzte uhaskan. Orain herritarren eskura daude. Eta bertan, etorkizuneko Villabona nolako izan daitekeen irudikatu daiteke. Proiektu guztiak sarritzen ez zirenez, irakasleek aukeraketa egin behar izan dute.

Udalak oraindik ez du proiektuak behar bezala ikusteko aukerarik izan. Baina garbi dute, Villabonak etorkizunean hazi nahi badu, Sacem ingurura handitu beharko duela.

Era berean, udal ordezkariak, ikasle hauek egin dituzten proiektuetan, baliagarriak izan daitezkeen ideiak egon daitezkeela uste dute.

AHT-ko obren akta altxamendua ez da gauzatu

Aduna » Udaleko atea itxita zegoela ikustean, agiri bat utzi zuten akten altxamendua bertan behera geldituz.

ERREDAKZIOA

Atzo, 09:00etan, Sustapen Ministerioi zazpi bat lagun agertu ziren ertzainez inguratuta Adunako Udalerari. Udaletxearen arkupean sartu, eta atea itxita zegoela ikustean, zenbait minutuz bertan egon ondoren, bertan dagoen oharrentzako taulan agiri bat utzi zuten. «Gaurko -atzoko- deituta dauden guztiak egintza hori suspenditu egin dela jakinarazten zaie. Espediente horrek erasandakoei, deialdiaren egun eta leku berria egokiro jakinaraziko zaizkie», zioen oharra.

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanaren esanetan, «ekainaren 10ean egin zen ezinbesteko desja-



Udaletxearen aurrean elkartu ziren 'Denok gara kaltetuak' lelopean. HITZA

betzeen espedienteak. BOEn, ordea, ekainaren 26an kaleratu zen. Ohiturari jarraituz, ahal den informazio gutxi eta azken momentukoa izan da» adierazi dute.

«Akten altxamendua, berez, Aldi Baterako Okupazioak gauzatzeko asmoarekin zegoen deituta Nahitaezko Desjabetzen prozesu

bera jarraituz. Zenbait irregularitasun aurkitu dira desjabetuen zerrandian; besteak beste, partzelaren jabe gisa ageri zena, berez ez zen partzela horren jabea. Nahiz eta jabe horrek behin eta berriz jakinarazi irregularitasun hori eta alegazio bidez ere jakinarazi, oraindik ez dute zuzenketarik

egin» diote Elkarlanekoek. Atzarako egindako deialdia dela eta, *Denok gara kaltetuak* lelopean, 08:30ean kontzentrazioa egin zuten Adunako udaletxe aurrean. Plazan ertzain asko bildu zirela jakinarazi dute eta baita herrira igotzeko sarreretan ere. Gainera, «bertan bildutako jendea bidez grabatzen aritu dira» azpimarratu nahi izan dute. Momentu honetan, Adunari dagokion proiektua, Zizurkil-Urnieta zatiaren proiektua, Oinarrizko Proiektuaren atalean aurkitzen da. Elkarlanetik diotenez «orain arteko guztia Proiektu Konstruktiboan egin ahal izateko zundaketak gauzatzeko da».

Tolosaldeko obrak

Dagoneko Tolosaldean, Proiektu Konstruktiboaren atalean zenbait zati daude eta horietako batzuk eraikitzen ari dira. Eta eraikitzen ari diren zati horrek, geldialdiak izan ditu inongo azalpen zehatzik eman gabe.

AHT Gelditu! Elkarlanak duen informazio eskasaren arabera «diru gabezia da geldialdi horren arrazoia». Era berean, «obreakin zubi bat lurrera bota dute, eta hori dela eta, inguru horretako bizilagunek obretatik barrena joan behar izaten dute etxera. Obretako bideak egoera oso txarrean daude la jakinik» aipatu nahi izan dute.

Plaza Etxeberri
JATETXEA

Hala Maitatu! Plaza Etxeberri
Dizka!

egin 22:00 sara atzerik 943 69 13 36 telefonozan. 111

**Udaran,
igande
gauetan
irekita**



Aste honetan Tolosatik Itsasondoraino joango gara, hortik Ordiziara sartuko gara eta Lazkao pasa ondoren Ataun bisitatuko dugu.

Goierriko Ordizia eta Ataunera

JOXEMISAIZAR

Gaurko ibilaldian Goierriin sartuko gara berriro, historia eta ondare handiko bi herri ezagutzeko: Ordizia eta Ataun. Ordiziak Tolosaren urte berean jaso zuen herria sortzeko agiria, 1256an. Eta Ataunek, Jose Miguel Barandiaranen jaioterria izateaz gain, monumentu eta gauza asko ditu ikusgai. 61 kilometroko ibilbidea da, baina ia aldaparik gabe. Hori bai, etengabe igotzen doa, eskualdearen izenak aurrerazten digun bezala.

Tolosatik abiatuta, Itsasondoraino bidegorria erabil daiteke trafikoa saihesteko.

Dena zelaia da eta Alegia, Ikaz-

tegieta eta Legorreta zeharkatuko ditugu. Egun hauetan albisteetan asko aipatzen ari diren Itsasondo pasa eta Ordizian sartuko gara. Aurreko batean ere aipatu genituen bere jauregiak, monumentuak eta azoka ospetsua.

Herria pasa eta berehala, CAF enpresaren parean, Lazkaora eramango gaituen zubi bat hartuko dugu. Lazkao Txiki bertsolari zena izango da herri honetako pertsonaiarik ospetsuena. Eta beneditarren komentua, eta batez ere liburutegia, ezaguna mundu osoan.


Lazkaotik Ataunera pixkanaka gora doa errepidea, baina zailtasun handirik gabe. Jose Miguel Barandiaranen antropologoaren herria

Gipuzkoako (eta agian Euskal Herriko) herririk luzeena izango da, San Martin, San Gregorio, Ergoiena, Aia, Urkillaga eta beste hainbat auzotan sakabanatuta. Errepide nagusikoak bakarrik ezagutuko ditugu, trafikogutxi duela aprobetxatuz.

Zenbait eliza eta jauregiz gain, San Martin elizako organo barrokoa aipatu behar da bereziki. Kontzertu ugari izaten da bertan, gaur bertan eta hurrengo larunbatean, adibidez.

Lizarrusti mendatera igotzeko aldapa hasten den lekuan hartuko dugu buelta, Casetas deitzen duten lekuan, gaurko nahikoa iruditzen zaigu eta. Gehiago nahi duenak 6 km gehiago ditu Lizarrustiraino, 300 metro igoz, baina aldapa bereziki gogorrik izan gabe. Aralarko parketxea bertan kokatzen da, informazio ugari emanez eta bertatik Lareo urtegitira eta Aralarko hainbat menditara igo daiteke.

Itzuleran bide beretik are errazagoa egiten da, kontuan izanda pixkanaka jaisten joango garela, Agauntza ibaiaren ertzetik eta ondoren Oriaitza ibaiaren lagun hartuta.



Ataungo San Martin eliza. JOXEMISAIZAR

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN** agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORTZETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Alurr dantza taldeak frantziarrak ere dantzan jarri ditu

Ibarra» 'Munduko kulturak eta ohiturak' izeneko nazioarteko jaialdian lehen urratsak eman ditu dantza taldeak.



Alurreko dantzari gazteak, ikusleak dantzara aterata. ALURR

OIHANA IGUARAN

Igande gauean abiatu zen Alurr dantza taldea Frantzia aldera, non, Benin, Georgia, Rapa Nui (Pazko Irla), Indonesia, Lituania, Mongolia, Nigeria, Peru eta Frantziatik joandako taldeekin batera, Romans-Sur-Iseren (Frantzia) hilaren 3tik 11ra bitartean ospatzen ari den *Munduko kulturak eta ohiturak XXXIII*. nazioarteko jaialdian parte hartzen ari den.

Romans-Sur-Iseren ospatzen ari den nazioarteko jaialdiaren antolatzaile den Empi eta Riaume dantza taldeak egindako lanarekin oso pozik dira Alurrekoak; «oso jende jatorrekin egin dugu topo, antolakuntzakoak, gidak eta jen-

dea oro har, guztia ongi atera dadin eta esperientzia positiboa gertatu dadin gainean daude».

Alurr dantza taldeko dantzariak, Romans-Sur-Iseren eta inguruko herrietako familiek etxean hartu dituzte; hori dela eta, jaialdia irauten duen bitartean, bertakoe-kin zuzeneko bizikidetzak espe-

rientzia izango dute Ibarrik jai-otako gazteek.

Alurreko dantzariak asteburu honetan amaituko dute bidaia eta gaur bertan 09:30ean jaialdiaren amaierako praktika izango dute, eta 11:30ean Romans-Sur-Isereneko alkatearen harrera izango dute eta opariak elkartrukatu dituzte.

Danenakoek emaitza onak lortu dituzte

Villabona» Donibane-Lohitzuneko Altxkadi trofeoan izan dira Danenako pultsulariak, lan txukuna eginez.

dira Villabonako Danena taldeko pultsulariak. Ostiralean bertan abiatuko dira Coruña aldera, behar bezala deskantsatu eta prestatu ahal izateko.

» SAILKAPENA

OIHANA IGUARAN

Joan zen larunbatean, hilaren 3an, Donibane Lohitzunen izan zen Altxkadi txapelketan ederki aritu ziren Danena taldeko pultsulariak. Bakarka zein taldeka, ohituta dauden bezalako emaitza ederrak eskuratu zituzten.

Sasiain, Martinez eta Gonzalez

Hiru pultsulari joan ziren, Igor Sasiain, Teddy Martinez eta Francisco Gonzalez, bakarka ere hurrenez hurren sailkatu zirenak, hain zuzen.

Larunbat honetan, Coruñaako Sagrada Familia kiroldegian 50. Espainiako Absolutu Txapelketa ospatuko da eta bertan ere izango

Taldeko orokorra

- 1. Danena:** 305,20 puntu (Sasiain, Martinez eta Gonzalez).
- 2. Momtaubam (Toulouse):** 197,50 puntu.
- 3. Sain Medar (Bordele):** 128 puntu.
- 4. Colomiers:** 116,20 puntu.
- 5. Mont De Marsam:** 95,20 puntu.
- 6. Indarra (Gasteiz):** 76,80 puntu.
- 7. Zarautz:** 42,80 puntu.

Banakako orokorra

- 1. Igor Sasiain:** 111,60 puntu.
- 2. Teddy Martinez:** 108,20 puntu.
- 3. Francisco Gonzalez:** 85,40 puntu.

Jose Ramon Sagastume Larretaren omenezko plaka jarriko dute, gaur

Bedaio» Gurutze Gorriaren 140. urteurrena da eta medikua izan zen honen sortzailea Gipuzkoan.

jarriko baitute bere omenezko plaka. Oroigarria agertzeaz gain, salda, haragi egosia eta beste zenbait otarteko izango dira nahi dutenentzat. Omenaldian bizilagunetz gain Gipuzkoako Gurutze Gorriko lehendakaria eta erakundeko arlo desberdinetako hainbat zuzendari eta boluntario ere izango direla agertu dute. Hauekin batera, udal-letxeak ere agertzekotan dira.



Nagusi Etxea. HITZA

OIHANA IGUARAN

Gipuzkoako Gurutze Gorriaren urteurrena ospatzekotan zirela, ezusteko bikaina hartu dute bedaioarrek, erakunde hau duela 140 urte sortu zuen gizona bertakoa zela jakitean. Dirudienez, Jose Ramon Sagastume Larreta medikua izan zen erakunde hau eratzearen erantzule eta horregatik egingo diote gaur omenaldia.

Egurdian izango da hitzordua, Nagusi Etxeko lorategian, bertan

Lehen: 31,53 €
Orain: 25,22 €

Lehen: 19,83 €
Orain: 15,86 €

Lehen: 66,12 €
Orain: 52,9 €

% 20

Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €

Lehen: 57,17 €
Orain: 45,74 €

Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €

% 20

Euskal Herriko Plaza orrialdea

EHKOPLAZA

www.euskalherriko.plaza.com



ANOETAKO HERRI IKASTOLAK DATORREN IKASTURTERAKO HIRU LANPOSTUETARAKO DEIALDIA EGITEN DU

LANPOSTUAK eta ESKAKIZUNAK

- **Hezkuntza Laguntzaile Espezialista.** Dagokion titulazioa eta EGA edo baliokidea.
- **Jangelarako langilea.** Euskara gaitasuna.
- **DBHko teknologialari irakaslea.** Dagokion titulazioa eta EGA edo baliokidea.

CURRICULUMAK anoeta@ikastola.net-era bidali lanpostua zehaztuz edota ikastolako idazkaritara
• Irdutegia: 9:00-14:00) ekerrri.
• Epea: Uztailek 13 (arrazalderako ordu-biak).
• Argibide gehiagorako: 943-652932.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Berastegi.** Salontzo jaietako hasiera emateko, abuztuaren 6an, herri afaria egingo dute, (txekorra burduntzian). Txartelak salgai Zelai taberna, Dendaberri, Urepele bil-tokia eta Basurde elkartean 16 euroan (12 urtetik beherakoek 8 euro).

Jaiak

■ **Asteasu.** 22:00etan Santamariañako XVI. Mus Txapelketa, jaien barruan.

Musika

■ **Tolosa.** *Los muchos caminos a Santiago* (antzinako musika) Santa Klara komentuan, 20:30ean hasita.
■ **Zizurkil.** Big Fingers and the love seedsen kontzertua Zizurkilgo Berraz Jan jatetxean, 22:30etik aurrera.

Zinema

■ **Tolosa.** *Kick ass* filma Leidor aretoan, 19:30ean eta 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur.
10:00. Zarzuela. **10:30.** Klipak.
11:00. Ikusmira. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Kiroleroak. **12:30.** Iparraldea XXI. **13:00.** Nonochan. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Tolosand blues. **14:30.** Tolosand blues. **15:00.** On ein! **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Kultur zulo.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aurten estreinakoz Alegiako, Altzoko eta Ikaztegiako taldeak bateratuta aritu dira; Intxurre pilota eskolakoen arabera, esperientzia «oso aberasgarria» izan da, eta emaitza «oso onak» lortu dituzte.

Intxurreren denboraldi «bikaina»

ERREDAKZIOA

Intxurre pilota eskolako aurten denboraldiari amaiera emateko afaria egin zuen iragan ostiralean. Denboraldi osoan entrenamenduetan aritutako pilotariak, euren entrenatzaileak eta eskolako arduradunak bildu ziren Intxurre elkartean, giro «polit»-an.

Aurtengo denboraldiari buruz solasean aritu ziren, eta hurrengo urtekoari ere erreparatu zioten. Eskola kirola moduan aritzen direnez gain, infantiletik aurrera, federazioko fitzarekin, 42 neska mutil ariko dira, ia denak Alegia, Ikaztegieta eta Altzokoak.

Eskuz eta paletaz ariko dira (azken modalitate honetan neskek, kadete zein infantilak) eta bukatu berri den denboraldian egin duten bezala, hiru herrietako frontoiak erabiliko dituzte. Udako atsedendaldian osten, iraileko lehen egunetik hasiko dira, berriro ere, entrenamenduekin.



Denboraldi amaierako afaria egin zuten iragan ostiralean. HITZA

Joan den denboraldia izan da Alegia, Ikaztegieta eta Altzoko taldeak bateratuta aritu diren lehenengoa eta emaitza «zein hobea» izan da. Gauzak «hobetu eta errazteaz» gainera, lanak, betebeharrak, gogoak eta ilusioak elkarrekin konpartitzea «oso aberatsa» izan da antolatzailen ustetan, eta on-

dorioz «emaitzak oso goi mailakoak izan dira».

Azken partidak jokoan

Entrenamenduak amaitu dituzte, baina, pilotari batzuk azken partidak ari dira jokatzeko oraindik. Hala, pasa den astean bi txapel ekarri zituzten pilota eskolakoek

Barañaingo finaletatik. Eñaut Urretabizkaia ikaztegiak eta Beñat Zabala alegiarrak osatutako bikoteak 22 eta 7 irabazi zuten jubenetako finalean eta Iñaki Artola alegiarrak buruz-buruko irabazi zuten Erostarberen aurka Urretxun.

Jokatutako beste bi final, galdu egin zituzten alebin mailan. Ikaztegiak jokatuak udaberri sarrak finala donostiarrek irabazi zuten 16 eta 11 Xabi Luzuriaga eta Gorka Altunaren aurka. 16 eta 11 galdu zuten ere Mattin Jauregi, Uxer Mozos eta Iñaki Otegi Antzuolan antzuolaren aurka. Kategoria berean, finalera iritsi zen Añorgako txapelketa Gorka Altunak eta Aratz Irazustabarrenak osatutako bikotea. 16 eta 13 irabazi zuten.

Hain zuzen ere, igande honetan izango dute finala, goizeko hamarretatik aurrera. Beraien aurrean asteasuarra eta azpeitiarrak osatutako bikotea izango da.

A Agurrak



Urte askoan!

Janitz Sagastibeltza (Leitza).
Gaur 3 urte. Zorionak osaba-izeben, aiton-amonen eta lehengusuen partetik. Muxu handi bat.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

